

# HERNANIK kronika

2004 urtea  
Apirilak 2  
Ostirala  
Alea: 1066  
[www.kronika.net](http://www.kronika.net)



Biterin egin zen aurkezpenean Hernaniko sektore ezberdinako jende ugari bildu zen.

## Kontseiluak euskara normalizazio bidea indartzeko deialdia egin die alderdi politiko, gizarte eragile eta norbanakoei

■ 'Hizkuntza eskubideak denon konpromisoa' kanpaina martxan jarri du Kontseiluak eta asteartean egin zuten aurkezpena Biterin ■ Duela bost urte martxan jarritako kanpaina, Bai Euskarari, berretsi eta indartzea da asmoa.

**KONTSEILUAK** Hizkuntza eskubideak denon konpromisoa kanpaina aurkeztu du Hernanin, Biterin egindako ekitaldi publikoan. Zigor Etxeburuk, Kontseiluko kideak, Ixiar Erasunek, Hernaniko euskalgintzako kideak eta Mariasun Casadok, Baskelite enpresako ordezkariak eta Bittor Hernandez, AEKko ikasleak egin zuten aurkezpena eta deialdiak erantzun zabalera izan zuen, Hernaniko sektore ezberdinako jendea bildu baitzen.

Zigor Etxeburuk, Kontseiluko ordezkariak, azaldu zuen kanpaina hau martxan jartzeko arrazoia. Bide horrean Etxeburuk adierazi zuen euskaren etorkizuna zalanatzan dagoela eta adierazi zuen Kontseiluak duela 5 urte jarritako euskeraren normalizaziorako plana, Bai Euskarari, berretsi egin behar dela. Horrekin batera adierazi zuen euskarak azken

urteetan erasoak jasan dituela (AEK eta Egunkariaren kontrako erasoak gogoratu zituen) eta eraso horiek bilatzen dutela euskararen normalizazio bidean egiten diren ahaleginak suntsitzea. Etxeburuk adierazi zuen orain arteko lanak jarraitu egin behar duela, baina, konpromisoak indartu egin behar direla.

### Hiru ildo

Hizkuntza Eskubideak denon konpromisoa kanpainak hiru ildo edo bide dituela adierazi zuen Kontseiluko ordezkariak:

1) Batetik, alderdi politiko eta sindikatuek hartzteko beharreko konpromisoak daude: akordio soziopolitikoa. Zigor Etxeburuk adierazi zuen euskarak izandako erasoak politikoak direnez beharrezkoak direla konpromiso politikoak eta hitzetik ekintzetara pasa behar dutela eragile politikoek.  
2) Bigarren ildoa, enpresak,

gizarte eragile eta elkarteeek hartu beharreko konpromisoak osatzen dute. Horren adibide bezala, Mariasun Casadok hitz egin zuen, Bakelite enpresako ordezkariak eta bere enpresak hartutako konpromisoak jarritzen adibide bezala: enpresaren hizkuntzaren diagnostikoa egin, rotulazio euskarak jarri, telefonoa euskarak erantzun, esaterako.

3) Azkenik, norbanako konpromisoak aipatu zituen Kontseiluko ordezkariak eta eguneroko bizitzan euskara edonon erabiltzea norma-

lizazioan urrats garrantzitsua dela eta adierazi zuen eremu batzuetan ezinezkoia izango dela, epaitegian esaterako, baina eremu horietan ere euskarak exijitu behar dela. Konpromiso individualen adibide bezala Bittor Hernandezek hitz egin zuen, esanez berak hartu duen konpromisoa euskaltegian euskara ikastea dela.

Hernaniko euskalgintzak herrian ekintza plana aurrera eramateko pausuak ematen hasi da eta horietako bat izan zen astearteko aurkezpena. □



Mariasun Casado, Zigor Etxeburu, Ixiar Erasun eta Bittor Hernandez.

## Oronak gaur inauguratuko du lantegi berria

ORONA enpresak gaur eguerdian inauguratuko du Epeilen egindako lantegi berria. Iazko martxoan jarri zuten lehenengo harria eta gaur 13:00etan inauguratuko dute. □

**LARRE-GAIN**  
TOLARE-SAGARDOTEGIA

943 55 58 46  
EREÑOTZU - HERNANI

Zataz sagarda berria edatera!  
Sagardo naturala urte osoan botilan salgai

**HERNANI HIZKUNTZAK ENGLISH**  
Gure Ingelesetxea

Hurrengo astean klaseak izango dira, astelehena, asteartea eta asteazkenean.  
Oporretatik bueltan, apirilaren 19an, astelehena hasiko gera berriz.

Alan / Joe  
943 33 11 08  
KALE NAGUSIA 41, 1

**BASERRIKO SAGARDOA**

✓ Ostegunetik igandera irekita

**GOIKO LASTOLA SAGARDOTEGIA**

Sagardogintza mantendu duten baserritarren omenez.

EREÑOZUAUZOA  
TEL: 943 553272  
HERNANI

## OSASUNAREN ASTEA

### Gorpurtz posturei buruzko hitzaldia

GAUR Maite Gomez Zapainek hitz egingo du eta gorpurtz posturei buruz beste heziketa baten beharra aldarrikatuko du. Maite Gomez RPGista da, 1981garren urtean sortutako errehabilitazio osteomuskularrari buruzko teoria baten jarraitzailea. 19:30etan. □

## PELOTA

### Aurrera Saiaz eta Zazpi Iturrik, bihar finala

BIDANIKO Aurrera Saiaz taldeak eta Amezketako Zazpi Iturrik bihar jokatuko dute Elkarte Arteko Berria txapelketako finala Hernanin. Aurrera Saiazek Iruñako Oberea bota zuen finalurrean eta Zazpi Iturrik Hernani utzi zuen kanpoan. Partiduak kirolegiko frontoian dira, 16:30etan hasita. □

### GRAVN txapelketa bihar

GRAVN txapelketako bi partidu jokatuko dira bihar Hernanin, Gipuzkoa eta Arabaren artean, goizeko 10:30etatik aurrera. Jubenil mailako partiduak dira eta bi bitara Gorrotxategi hernaniarrak jokatuko du Larrañagarekin. Gipuzkoa, Bizkaia, Errion, Nafarroa eta Arabako afizionatu, 22 urtez azpiko eta jubenil onenek jokatzen dute GRAVN txapelketa, aurten eskuz eta palaz. □

### Pelikulen soinu bandak

MUSIKA Bandak kontzertua emango du gaur Biterin, eta zortzi pelikula ezagunetako soinu bandak interpretatuko ditu. Ekitaldia, 20:00etan da. □

## ZINEA BITERIN

### 'Gothika' pelikula gaur

GAUR 22:30etan eta bihar 19:30etan eta 22:30etan □

## Trikittakun taldeak 3garren saria lortu du

■ Musika Eskolako zazpi gaztek osatzen dute Trikittakun taldea ■ Horrez gain, instrumentu ezberdintasunari emandako saria ere jaso du Trikittakun taldeak.

LEHENGKO asteburuan jokatu zen Elgoibarren instrumentu taldeen IIIgarren lehiaketa eta Hernaniko Musika Eskolako gazteek emaitza ona lortu zuten. Trikittakun taldeak 3garren saria lortu zuen oinarrizko mailan eta horrez gain, instrumentu desberdintasunari ematen zaion sari berezia ere jaso zuen Trikittakun taldeak.

### Zazpi kide

Hernaniko taldea zazpi musikari gaztek osatzen dute: Ainhoa Usandizaga (pandero jolea), Ana Erize eta Ane Eizagirre (Saxo joleak), Irati Ugalde eta Amaia Mujika (trikitilariak), Jon Ansorena (txistularia), Unai Iradi eta Ekaitz Arruarte (txalapartariak), eta Nahikari Agirreurreta (teklatuan). □



Trikittakun taldeko musikariak eta irakasleak.

## Larunbatean Bilbon egingo den manifestaziorako autobusa

AUTODETERMINAZIOA bai lemarekin manifestazioa egingo da larunbata arratsaldean Bilbon. Hernaniko Ezker Abertzaleak dei egiten die herritarrei bertara joateko eta jakinarazten du manifestaziora joateko autobusa antolatu dutela. Autobusean leku hartu nahi duenak Garinen du izena emateko aukera. □

## Hizkuntza Eskubideen egunera, Lesakara, joateko autobusa

EUSKAL Herrian Euskarazek jakinarazi du Lesakan igandean ospatuko den Hizkuntza Eskubideen Egunera joateko autobuserako txartelak larunbatean, arratsaldeko 19:00etan kenduko dituztela. Sarrerak salgai daude: Lete, Garin, eta Txili tabernetan. Horrekin batera, herritarrok animatu nahi dituzte bertara joateko. □

### FUTBOLA - GORENGO MAILA

## 0-0 Zubipen, eta Hernani azken bigarren

HERNANIK ezin izan zuen puntu bat besterik atera Zubipen Urolaren kontra. Atzeratutako partidua zen eta Seccoren mutilek 0-0 egin zuten.

Hernanik azken bigarren jarratuko du 32 punturekin, Ordiziak baino puntu gutxiago-rekin. Hortik gora, Lizeok, 35 puntu ditu eta Real Unionek 37.

Asteburu honetan, Zuri-berdeek Beti Gazteren kontra jokatuko dute kanpoan eta hurrena Trintxerpe hartuko du Zubipen. □

### ESKOLA KIROLA

Aretx Futbola	Taldeak	N on	No iz	Futbola
Benjam inak	Langile C - Elizako B	Kio degia	B har09:15	Infantil neskak
Benjam inak	Im aculada - Langile A	Kio degia	B har09:15	Infantil neskak
Benjam inak	Urum ea B - Elizako B	Kio degia	B har10:00	A lebin neskak
Benjam inak	Urum ea B - Elizako A	Kio degia	B har10:00	A lebin neskak
Benjam inak	Urum ea D - Langile B	Kio degia	B har10:45	A lebin m util
Benjam inak	Langile B - Urum ea A	Kio degia	B har10:45	A lebin m util
Benjam inak	Elizako A - Langile C	Kio degia	B har11:30	A lebin m util
Boleibola				
Infantil m util	Im aculada - Zukaiz	Kio degia	B har11:45	Langile - Jun La Sale
Infantil neskak	Langile - Elizako	Kio degia	B har11:45	Langile B - Elizako

### ASTEBURUKO PARTIDUAK

Infantil neskak	Lezo - Lo hazpe	Zubipe	B har10:00
Infantil neskak	Langile - Jun La Sale	Zubipe	B har10:00
A lebin neskak	Langile B - Elizako	Zubipe	B har09:00
A lebin neskak	Langile A - Elizako	Zubipe	B har09:00
A lebin m util	Im aculada - Elizako B	Zubipe	B har11:00
A lebin m util	Langile A - Langile C	Zubipe	B har11:00
A lebin m util	Urum ea A - Urum ea B	Zubipe	B har12:00
A lebin m util	Elizako A - Langile B	Zubipe	B har12:00



Hernaniko Udala

## DOBERA SARIA II.EDIZIOA

3.000 EUROKO DIRU LAGUNTZA

HERNANIRI BURUZKO LAN BAT SARITUKO DA:

- Banaka zein taldeka egin daiteke.
- Lana euskaraz izango da.
- Lana egiteko epea: 6 hilabete.
- Proposamenak aurkezteko epea apirilaren 30a.
- Agiri guztiak Dobera Elkartera bidali behar dira. (Larramendi - 11 ; Telf: 943-332799)



Argarateko Harrieta buzoia jarri zituztenekoa.

## 50 urte Zuburu-Argarateko Harrien tontorrean buzoia jarri zutela

■ Urteurrena dela eta, igande honetan Argarateko Harrietara ibilaldia egingo da, eta ondoren bazkaria.

IGANDE honetan 50 urte beteko dira Zuburu edo Argarateko Harrien tontorrean buzoia jarri zela, eta hori ospatzeko mendi buelta eta bazkaria izango dira. Argarateko Harriak Aranoko (778 m) bidean daude, Etenetako zelaia pasata. Adarra mendiaren magalean eta Oindditik gertu.

1954garren urtean, lagun talde batek Kaiku taldea sortu zuen. Irizar taberna zuten bilduleku eta egun batean Hernani inguruko mendiren batean buzoia jartzea erabaki zuten, eta asko pentsatu eta gero Argarateko Harrieta jartzea erabaki zuten, oso mendi berezitzat jotzen zutelako. Garai hartako protagonistek uste dute garrantzikola dela orduko bizimoduua nolakoa zen aipatzea: "Urte haietan gaztedia oso mugatuta zegoen eta egiten zuen edozein gauza kontrolpean zegoen. Kirola zen egiten uzten zitzaiotan gauza bakarra. Kaiku taldean futbolean eta eskubaloian joka-

tzeaz gainera, mendi zen zaletasun nagusienetako" Mendiriz Mendi eta Mendigainekin elkarlanean aritzen ziren eta igandero egiten zituzten mendi martxak.

Igandeko ospakizunak antolatu dituztenek orduko Kaiku taldea zeinek osatzen zuten gororatu dute. Besteak beste, Arturo Rodriguez, Jose Garcia, Felix Aranburu, Juan Manuel Irizar, Jose Etxarri, Jaime Gonzalez, Xabier Sistiaga, Juan Jose Telleria, Cesar Gonzalezek. Buzoia jartzeko ekitaldian amandrela bat ere behar zutela eta Lupe Azpiazuk egin zuen lan hori, Asun Idigoras, Benita Imaz, Pili Imaz eta Txaro Azpiazu ere tartean zirela. Eguna zoragarria pasa zuten. 1993an buzoi berria jarri zuten eta Arturo Fernandez eta Felix Armandarizen lana nabarmendu dute lan harten.

Igandean, beste egun eder bat pasatzeko aukera dute: goizean mendira eta gero bazkaria Txantxangorrin. □

**OKERRAK ZUZEN:** Martxoaren 31ko Kronikan Merkatatzako Laguntza Teknikorako Kabinetearren telefonoa ez zen agertu. MLTKren telefonoa da: ☎ 943-456333.

### IRAGARKI MERKEAK

Hernani inguruko jatetxe batean barrarako zerbitzari bat behar dugu. Ibilgailua behar da. Deitu: 943 55 02 54 (astelehenetik-ostiralera) edo 608 12 07 32

Indigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebral, reflexologia, auriculoterapia,...: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Sta Barbara 42)

Jangelako zerbitzari bezela lan egingo nuke asteburuetan. Deitu.: 676 29 22 41

### ZERBITZUAK

#### TELEFONOAK

- Taxiak: 943 550093
- Udaltzaingoa: 943 333288
- DYK: 943 464622
- Autobusak: 943 556662
- Anbulatorioa: 943 006666
- Jokalarri anonimoak: 943 331103

#### FARMAZIAK

- Egunez: Correa Perkaiztegi 8 ☎ 943 551933
- Gauez: Ansa Andoain. Ondarreta ☎ 943 591302

Roberto Dos Santos - FISIOTERAPEUTA  
Kol. Zkia: 313

**KIMERA**  
Fisioterapia zentru berria Antziolan

### TRATAMENDU TEKNIKAK:

- Osteopatia
- Eskuzko terapiak
- Elektroterapia
- Termoterapia: ultrasonidoak, "onda corta",...
- Masajeak: terapeutikoak eta kirol masajeak

### LESIOS TRATAMENDUAK:

- Traumatologikoak esgintzeak, kontrakturak,...
- Reumatologikoak tendinitis, artrosiak,...
- Neurologikoak hemiplejiak, paralisiak,...
- Kirol lesioak Fibra hausturak, sobrekargak,...

Istripu asegurauak eta etxeeko atentzioa

KIMERA Fisioterapia - Antziola 16 beheha (Gunearen aurrean) - Tel.: 943 556 427